



# Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

## OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2019IPLE0003

**Eguna:** 2019-04-16

**Ordua:** 13:30 – 15:08

**Tokia:** Areto nagusia

### Bertaratuak

- Zorione Etxezarraga Ortuondo.....	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües.....	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte .....	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos .....	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro .....	EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia .....	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena .....	Ehbildu
- Ander Goicoechea Ocariz .....	Ehbildu
- Ainara Vázquez Martínez.....	Ehbildu (2. puntuan)
- M <sup>a</sup> Teresa Bernal Monroy .....	Ehbildu
- Iker Goñi Salaberria.....	Ehbildu

### Bertaratu ez direnak

- Ione Olatziregi Mendiorotz .....	Ehbildu
- Mikel Durán Gonzalo.....	Euskadiko Sozialistak

### Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría, ordezeko udal idazkaria

### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2019ko martxoaren 28ko akta onartzea	1.	Aprobación del acta de 28 de marzo de 2019.
Aurrekontua: 2018 ekitaldiko likidazioa	2.	Presupuesto: liquidación ejercicio 2018.
2018 ekitaldiko kredituen txertaketa.	3.	Incorporación de créditos del ejercicio 2018.
Kreditu aldaketa: 1/2019 kreditu gehigarria.	4.	Modificación de créditos: crédito adicional 1/2019.
Kreditu aldaketa: 2/2019 kreditu gehigarria.	5.	Modificación de créditos: crédito adicional 2/2019.
Ordenantza fiskalaren aldaketa puntuala (Kiroldegiko tasak).	6.	Modificación puntual de la ordenaza fiscal (Tasas del polideportivo).
Astigarragako udalaren ondasun eta eskubideen Inbentarioko hiri-lurzati (lursailak, berdeguneak, Espazio libreak, plazak, aparkalekuak eta bide Publikoak) epigrafea.	7.	Inventario de bienes y derechos del Ayuntamiento de Astigarraga correspondiente al epígrafe de parcelas urbanas (terrenos, zonas verdes, espacios libres, plazas, aparcamientos y vías públicas).
Astigarragako udalerrian hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantzaren aldaketa	8.	Modificación de la ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica en el municipio de Astigarraga.



# Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Txoritokietako Haitz-Lepoa eta Arkaitz-Txiki harrobietan betelana egiteko hitzarmena.	<b>9.</b>	Convenio para el relleno de las canteras de Haitz-Lepoa y Arkaitz-txiki en Txoritokieta.
Kale izendegia: kultur etxe berriaren izena.	<b>10.</b>	Callejero municipal: denominación de la nueva casa de cultura.
2020ko herriko jaia izendatzea	<b>11.</b>	Designación día festivo local 2020
Informazio, galdera eta eskariak.	<b>12.</b>	Información, ruegos y preguntas.

## Esan-eginak eta erabakiak:

### 1.- 2019ko martxoaren 28ko akta onartzea

Aho batez onartu da.

### 1.- Aprobación del acta de 28 de marzo de 2019.

Se aprueba por unanimidad.

### 2.- Aurrekontua: 2018 ekitaldiko likidazioa

Likidazioa onartzen duen 347/2019 dekretua, eta kontu-hartzailearen txostenaren berri eman du alkateak, eta adierazi 9 milioiko gerakina dagoela.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du aurrekontuaren %47a bakarrik gauzatu dela, eta inbertsioen kasuan gauzate-maila oraindik txikiagoa dela, gaineratuz urte urte okerrera doala. Halaber, adierazi du aurreko bileran adierazi zela zifra absolutoak aztertu behar zirela, baina horiekin ere gauzate maila txarra dela. Eta alkateari galdetu dio horren inguruko baloraziorik egiten duten eta norbaiten ardura hartuko duen.

Alkateak azaldu du likidazio txostena eta zifra absolutoak kontuan hartzen badira, ikusten dela portzentajeak jeitsi direla, baina ez zifra absolutoak. Azaldu du ez dela berdina inbertsio handiak egitea edo txiki asko, eta azken horrekin herriko esparru gehiagotara iristen dela, gehiago hobetzen direla. Gaineratu du inbertsioen txertaketak pisu handia duela, eta hurrengo aurrekontuetarako kontuan hartuko dela, baita kultur etxe berriak inbertsio handia eskatzen duela. Bukatzeko adierazi du ez dela legez kontrako ezer egin, eta ondorioz ezin dela arduraz hitz egin.

Zinegotziarentzat, berriz, ardura legela ez egon arren, bai politikoa. Adierazi du pozten dela kultur etxeak gastua dakarrela onartzea, prentsan adierazi baitute udalari doan aterako zaiola. Bestetik, azaldu du aurrekontuaren zifra absolutoak hartuz gero, gauzate maila beste urteetako baino txikiagoa dela, udalak sekula ez dituela eduki hain datu txarrak, eta hori aholkulari bat kontratatu dutela obren kudeaketan laguntzeko.

### 2.- Presupuesto: liquidación ejercicio 2018.

La alcaldesa da cuenta del Decreto 347/2019 por el que se aprueba la liquidación, y del informe de la interventora, señalando también que existe un remanente de 9 millones.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que sólo se ha ejecutado un 47 % del presupuesto, y que en el caso de las inversiones el nivel de ejecución es aún menor, añadiendo que cada año el tema va a peor. Señala también que en la anterior reunión se indicó que deberían analizarse las cifras absolutas, pero que el nivel de ejecución que hay con ellas también es negativo. Y pregunta a la alcaldesa si es que hacen alguna valoración al respecto y si se va a responsabilizar a alguien de ello.

La alcaldesa expone que si se tienen en cuenta el informe de liquidación y las cifras absolutas, se observa que los porcentajes han descendido, no así las cifras absolutas. Expone que no es lo mismo realizar grandes inversiones o muchas pequeñas, y que en ese último caso se llega a más ámbitos de la localidad, que se mejoran más. Añade que la inclusión de las inversiones tiene un gran peso, y que se tendrán en cuenta para los próximos presupuestos, y también que la nueva casa de cultura reclama una gran inversión. Para concluir, señala que no se ha realizado nada contrario a la ley, y que, por lo tanto, no puede hablarse de responsabilidad.

Para el concejal, en cambio, aunque no haya responsabilidad legal, sí que hay responsabilidad política. Señala que se alegra de que acepte que la casa del cultura conlleva un gasto, ya que en la prensa han señalado que al ayuntamiento le va a salir gratis. Por otra parte, expone que tomando las cifras absolutas del



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak adierazi du udalak ez duela inbertsio egitura, baita bideratu diren eta bideratzen dauden hainbat proiektu beste erakundeekin koordinatu behar direla, eta beste batzuk, berriz, plangintza aldaketa dakartela, eta horrek gauzak moteltzen dituela. Gainera komentatu du gauzak behar bezala landu behar direla eta ez duela balio daturik gabeko proposamenik egitea, haur eskolarekin oposizioak egin zuen moduan, azalduz herri eskolak azterketa demografikoa eskatu duela, eta horretan ari direla.

Zinegotziak galdetu du zergatik ez den azterketa lehenago egin, haur eskolaren kokapen berria udal osoko bilkurak erabaki baitzuen. Bestalde, adierazi du aurreko legegaldian ere obrak beste batzuekin koordinatu behar izan zituztela, baita ez dela HAPO aldaketa bakar bat izapidetu obrak bideratu ahal izateko, eta alkateari eskatu dio besteei ez botatzea errua, arazoa denean udal gobernu taldearen koordinazio eza.

presupuesto, el nivel de ejecución es inferior al de otros años, que el ayuntamiento nunca había tenido datos tan negativos, y eso que han contratado un asesor para ayudar en la gestión de las obras.

La alcaldesa señala que el ayuntamiento no tiene estructura de inversiones, y que se deben coordinar con otras instituciones diversos proyectos que se han tramitado y que se están tramitando, y que otros, en cambio, conllevan cambio de planeamiento, y que eso ralentiza las cosas. Comenta además que las cosas hay que desarrollarlas debidamente, y que no vale realizar una propuesta sin datos, tal y como la oposición hizo con la escuela infantil, exponiendo también que la escuela pública ha solicitado un estudio demográfico, y que están en ello.

El concejal pregunta por qué no se ha realizado antes el estudio, puesto que la nueva ubicación de la escuela fue decidida por el pleno municipal. Por otra parte, señala que en la anterior legislatura tuvieron que coordinar las obras con otros, y también que no se ha tramitado una sola modificación del PGOU para poder ejecutar las obras, y solicita a la alcaldesa que no eche la culpa a los demás, cuando el problema no es otro que la falta de coordinación del equipo de gobierno municipal.

### 3.- 2018 ekitaldiko kredituen txertaketa.

Alkateak kreditu txertaketa onartzen duen 365/2019 dekretuaren berri eman du eta azaldu du kontu-hartzailearen txostenean jasotzen dela zein kreditu diren txertagarriak.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du horiek 2018an gastatzeko zirela, eta horrek erakusten duela udal gobernu taldea ez dela gai aurrekontua gauzatzeko.

### 3.- Incorporación de créditos del ejercicio 2018.

La alcaldesa informa del decreto 365/2019 que aprueba la incorporación de créditos y expone que en el informe de la interventora se recoge qué créditos son incorporables.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que esos créditos eran para ser gastados en 2018, y que eso demuestra que el equipo de gobierno no es capaz de ejecutar el presupuesto.

### 4.- Kreditu aldaketa: 1/2019 kreditu gehigarria.

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Lehena.- 3.335.660,28 euroko kreditu aldatari hasierako onarpena ematea, 1/2019 kreditu gehigarri modalitatean.*

*Bigarrena.- Espedientea 15 egun balioduneko aldian*

### 4.- Modificación de créditos: crédito adicional 1/2019.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de hacienda y patrimonio:

*Primero.- Proceder a la aprobación inicial de la modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional 1/2019, de importe 3.335.660,28 €*

*Segundo.- Someter el expediente a información*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

*jendaurrean erakusgai jartzea, alegazioak egiten ez badira espedientea behin betiko onartuta geratuko dela azalduz, beste akordio baten beharrik gabe.*

Alkateak azaldu du proposamen gehienak udal teknikariek egindakoak direla, eta aurrekontuan proposatzen diren aldaketa batzuen nondik norakoak azaldu du (emakumeon plazaren urbanizazioa, eskultura...), baita horretarako dauden arrazoiak ere.

Andoni zinegotziak adierazi dio ongi dagoela teknikariek proposamenak egitea, baina irizpidea politikoa izan behar duela, eta udal gobernu taldeari aurpegiratu dio gero ez gauzatzea onartzen dena, baita azken lau urteetan hainbat proiektu (jangelaren handipena, DBH...) ez gauzatu izana. Eta galdetu dukultur etxe berriaren eraikitze-lanak kontrolatzeko udalak obra-zuzendaria izendatu duen, baita udalak ezarritako baldintzak betetzen dauden ere. Azken horren harira alkateak kultur teknikariari galdetzeko esan dio, eta zinegotziak erantzun dio hori ez dela teknikari horren ardura.

Jarraian zinegotziak aurreikusten diren aldaketa batzuen inguruko informazioa eskatu du, eta horiek jaso izanaren arrazoiak eman zaizkio: jaietan ekimen desberdin egin nahi izatea, sagardogileak eta Astiko elkarteak herriko identitatearentzat egokiak diren ekimenak bideratzeko; DBHrako lursaila urbanizatzea, herritarrekin partehartze prozesuaren emaitza bezala, Ergobia berrantolatzea (plaza oinezkoentzat bihurtzea eta aparkalekuak antoaltzea)...

Bukatzeko zinegotziak aurreratu du bere taldea abstenitu egingo dela, kontra ez egon arren, hobetu eta osat daitekeelako.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 6 botoekin (EAJ-PNV) eta 5 abstentzioekin (EHBildu)

*pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará el expediente aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

La alcaldesa expone que la mayoría de las propuestas las ha realizado el personal técnico, y expone también las características de algunas modificaciones que se proponen en el presupuesto (urbanización de emakumeon plaza, escultura...), así como las razones existentes para ello.

El concejal Andoni le indica que está bien que el personal técnico realice propuestas, pero que el criterio debe ser político, y reprocha al equipo de gobierno municipal que luego no se ejecuta lo que se aprueba, así como no haber ejecutado diversos proyectos durante los últimos cuatro años (ampliación del comedor, ESO...). Y pregunta si el ayuntamiento ha contratado una persona directora de obra, y si se están cumpliendo las condiciones establecidas por el ayuntamiento. Al hilo de ese último punto, la alcaldesa le indica que pregunte a la técnico de cultura, y el concejal le contesta que eso no es responsabilidad de esa técnico.

A continuación el concejal solicita información sobre algunas modificaciones que se prevén, y se le dan las razones de haberlas recogido: el querer realizar diferentes iniciativas en fiestas, al objeto de orientar diversas iniciativas que se entienden adecuadas para la identidad de la localidad por parte los productores de sidra y la asociación Astiko; urbanización del terreno para ESO, como resultado del proceso de participación de la ciudadanía reorganización de Ergobia (peatonalización de la plaza y organización de los aparcamientos)...

Para concluir, el concejal adelanta que su grupo se va a abstener, porque aunque no estén en contra, se puede mejorar y completar.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado** con 6 votos a favor (EAJ-PNV) y 5 abstenciones (EHBildu).

### 5.- Kreditu aldaketa: 2/2019 kreditu gehigarria.

Kreditu- gehigarria modalitatean (2/2019) kreditu aldatzeko espedientea onartzen duen 389/2019 Dekretuaren berri eman du alkateak; eta azaldu du bertan jaso direla, aurrekoan jaso gabekoak.

### 5.- Modificación de créditos: crédito adicional 2/2019.

La alcaldesa informa del expediente de modificación del crédito en la modalidad de crédito adicional (2/2019), y expone que se han recogido en él los puntos que no se habían recogido previamente.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Andoni zinegotziak adierazi du beste kreditu aldaketan egin duten irakurketa bera egin dutela.

Jon zinegotziak hitza hartu eta azaldu du beste kreditu aldaketa izapidetzen egon arren, gauzatu beharrekoa hainbat obra bideratzeko ezinbestekoa zela berri bat egitea, eta Foru Arauak aukera ematen duenez %5a baino txikiagoko kreditu aldaketak dekretu bidez egitera, horrela egin dela.

Andoni zinegotziak galdetu du Santio zeharreko aparkalekuaren inguruan hainbat galdera egin ditu: mugikortasun planarekin bat datorren, kiroldegia handitzean zer gertatuko den, baita ere ur-horniduraren kontratua nola esleitu den. Azken horri dagokionez, kontu-hartzaileak azaldu dio kontratu txiki bat zenez (47.000 bat eurokoa), zuzenean esleitu dela. Eta aparkalekua bera jartzearen inguruan, alkateak adierazi dio ezinbestekoa zela egitea bestea desagertu delako, baina behin behingoa dela; eta buketzeko azaldu du obra horrekin irisgarritasun aldetik inguruko egoera hobetu dela, espaloia luzatu delako.

El concejal Andoni señala que realizan la misma lectura que han realizado en la anterior modificación de crédito.

Toma la palabra el concejal Jon y expone que aunque estén tramitando la modificación del crédito, resultaba indispensable realizar otra para poder materializar diversas obras pendientes de ejecución, y dado que la Normativa Foral posibilita efectuar modificaciones de crédito inferiores al 5 % mediante decreto, se ha procedido de ese modo.

El concejal Andoni le hace diversas preguntas sobre el aparcamiento de Santio zeharra: si es acorde al plan de movilidad, qué ocurrirá cuando se amplíe el polideportivo, y también cómo se ha asignado el contrato de abastecimiento de agua. Respecto a ese último punto, la interventora le expone que al tratarse de un contrato menor (de unos 47.000 euros), se ha adjudicado directamente. Y en torno a la propia instalación del aparcamiento, la alcaldesa le responde que era indispensable hacerlo ante la desaparición del anterior aparcamiento, y para concluir exponen que con esa obra se ha mejorado la zona desde el punto de la accesibilidad, al haberse prolongado la acera.

### 6.- Ordenantza fiskalaren aldaketa puntuala (Kiroldegiko tasak).

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Lehena.- 2018ko abenduaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2019ko Ordenantza Fiskalen 2. eranskinetik 2 eta 3 puntuen aldaketari hasierako onarpena ematea.*

*Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onepenen erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodun.*

*Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egin duen irizpenaren proposamenaren arabera ebaziko dira.*

*Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onepenen erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du azken hiru urteetan esandakoa berresten dutela, alegia, famili berrien kontzepturako hobaria edo tasa, ez dela aurreikusitua.

### 6.- Modificación puntual de la ordenanza fiscal (Tasas del polideportivo).

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de hacienda y patrimonio:

*Primero.- Aprobación inicial de la modificación del anexo 2, puntos 2 y 3 de las ordenanzas fiscales 2019 publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 19 de diciembre de 2018.*

*Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.*

*Tercero.- Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.*

*Cuarto.- Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que confirma lo reseñado durante estos últimos tres años, es decir, que no se ha previsto la bonificación o tasa para



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

el concepto de nuevas familias.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 6 botoekin (EAJ-PNV) eta 5 abstentzioekin (EHBildu)

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado** con 6 votos a favor (EAJ-PNV) y 5 abstenciones (EHBildu).

**7.- Astigarragako udalaren ondasun eta eskubideen Inbentarioko hiri-lurzatien (lursailak, berdeguneak, Espazio libreak, plazak, aparkalekuak eta bide Publikoak) epigrafea.**

**7.- Inventario de bienes y derechos del Ayuntamiento de Astigarraga correspondiente al epígrafe de parcelas urbanas (terrenos, zonas verdes, espacios libres, plazas, aparcamientos y vías públicas).**

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de hacienda y patrimonio:

*Lehenengo atala.- Honako finka hauen aldaketak onartzea, udal-idazkariaren txosten juridikoan jasotakoari jarraikiz*

*Apartado primero.- Aprobar las modificaciones – recogidas en el informe de la secretaria municipal– de las siguientes fincas:*

- 1.a, 43-a, 43-b, 43-d, 50., 113. eta 114. fitxak aldatzea, mugak doitzeko, eta, horrenbestez, azalera eta balioespena egokitzeko.
- 5.a, 8. eta 41. fitxen planoak zuzentzea, lagapen-tituluetak planoetara jarraikiz.

- Modificar las fichas 1.a, 43-a, 43-b, 43-d, 50, 113 y 114, para ajustar los linderos, y en consecuencia, adecuar la superficie y la valoración.
- Corregir los planos de las fichas 5.a, 8 y 41, de acuerdo con los planos de los títulos de cesión.

*Bigarren atala.- Behin betikoz onartzea Astigarragako udalaren ondasun eta eskubideen Inbentarioko hiri-lurzatien (lursailak, berdeguneak, Espazio libreak, plazak, aparkalekuak eta bide Publikoak) epigrafea.*

*Apartado segundo.- Aprobar definitivamente el epígrafe de parcelas urbanas (terrenos, zonas verdes, espacios libres, plazas, aparcamientos y vías públicas) del Inventario de bienes y derechos del Ayuntamiento de Astigarraga.*

*Hirugarren atala.- Dokumentuaren testu bategina idaztea, eta bertan jasotzea lehendabiziko atalean adierazten diren aldaketak, baita ere 2018ko udal osoko bilkuran onartutakoak*

*Apartado tercero.- Redactar un texto Refundido del documento, incluyendo las modificaciones señaladas en el apartado primero, así como las aprobadas en la sesión plenaria de 20 de diciembre de 2018*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta aho batez **onartu da**.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado** por unanimidad

**8.- Astigarragako udalerrian hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantzaren aldaketa**

**8.- Modificación de la ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica en el municipio de Astigarraga.**

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiroko batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de urbanismo, vivienda y medio ambiente:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

*Lehena.- Udal ingurugiro teknikariak 2019ko martxoaren 25eko datarekin egindako txostena onartzea eta horren arabera, aurkeztutako alegazioari erantzuna ematea.*

*Bigarrena.- Udal ingurugiro teknikariak bere txostenean proposatzen dituen aldaketekin, Hots kutsaduraren aurkako babesteko udal Ordenantzaren aldaketa puntuala behin betiko izaeraz onartzea.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, partehartzea gehiago bermatu behar zelako. Adierazi du ez dela alegazioa kontuan hartu eta espero duela beraiei pertsonalki jakinaraztea. Bukatzeko komentu du zabor bilketan eta kontedore garbiketak eragiten soinuaren inguruan soinu azterketa egitea eskatu dela.

Azken horren harira alkateak adierazi dio ez dutela eskaerarik jaso, baina kontuan hartuko dutela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 6 botoekin (EAJ-PNV) eta 5 abstentzioekin (EHBildu)

*Primero.- Aprobar el informe técnico redactado por la técnico de medio ambiente con fecha 25 de marzo de 2019 y contestar a la alegación en base al mismo.*

*Segundo.- Aprobar definitivamente la modificación puntual de la Ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica, con las incorporación de los aspectos propuestos por la técnico de medio ambiente en su informe técnico.*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que su grupo se va a abstener, al entender que había que garantizar más la participación. Señala que no se ha tenido en cuenta la alegación y que espera que se les comunique personalmente. Para concluir, comenta que se ha solicitado un estudio acústico respecto al ruido que se genera en la recogida de basuras y la limpieza de contenedores.

Al hilo de ese último punto, la alcaldesa le señala que no han recibido ninguna solicitud, pero que lo tendrán en cuenta.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado** con 6 votos a favor (EAJ-PNV) y 5 abstenciones (EHBildu).

### 9.- Txoritokietako Haitz-Lepoa eta Arkaitz-Txiki harrobietan betelana egiteko hitzarmena.

Alkateak hirigintza, etxebizitza eta ingurugiroko batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Lehena.- Mogilur, S.L. eta Astigarragako Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena onartzea.*

*Bigarrena.- Alkatea ahalmentzea dokumentua sinatzeko.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du gaia aurreko legealditik datorrela, dagoeneko sinatuta egon beharko lukela eta lau urte beranduago aurretik egina zegoena kopia dela, baina ingurugiro baldintzak okerragoak eskatuz.

Alkateak azaldu du orduan ez zela behin betikoz onartu, eta inork ez diela esan hitzarmena sinatzeko moduan zegoenik; baita ere aurkezten den hitzarmen

### 9.- Convenio para el relleno de las canteras de Haitz-Lepoa y Arkaitz-txiki en Txoritokieta.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de urbanismo, vivienda y medio ambiente:

*Primero.- Aprobar el convenio de colaboración entre Mogilur, S.L. y el Ayuntamiento de Astigarraga.*

*Segundo.- Facultar a la alcaldesa para la firma del mismo.*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que el asunto viene de la anterior legislatura, que ya debería estar firmado y que cuatro años más tarde se ha copiado el que estaba hecho de antemano, pero requiriendo unas condiciones medioambientales peores.

La alcaldesa expone que entonces no se aprobó definitivamente, y que nadie les ha indicado que el convenio estuviera en condiciones de ser firmado, y también que la propuesta de convenio que se ha presentado



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

proposamena ingurugiro teknikariaren aldeko txostena duela.

Zinegotziak erantzun dio teknikariak proposamena legea urratzearen ingurukoa dela, baina alkate eta zinegotziei dagokiela balorazio politikoa egitea. Eta bukatzeko aurreratu du bere taldeak alde bozkatuko duela, ekimena beraiena delako.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta aho batez **onartu da**.

cuenta con el informe favorable de la técnico de medio ambiente.

El concejal le responde que la propuesta técnica analiza la vulneración de la ley, pero que es a la alcaldesa y las y los concejales a quienes corresponde realizar la valoración política. Y para concluir, adelanta que su grupo votará a favor, al tratarse de su iniciativa.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado** por unanimidad.

### 10.- Kale izendegia: kultur etxe berriaren izena.

Alkateak azaldu du bi proposamen zeudela kultur etxea izendatzeko, eta kultura batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*“Kultur etxe berria izendatzeko proposamena MURGIAZPI da”*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ez zaiela egokia hartzen horrelako erabaki bat hartzea, proposamena batzordeburuaren kalitatezko botoarekin onartu denean, eta proposatu du herritarren partehartzearekin onartzea, alegia, hitza ematea beren proposamenak aurkezteko.

Alkateak azaldu du herriko eragileei aukera eman zitzaizela izenak proposatzeko, eta gero kultur teknikariak aukera desberdinen inguruko azterketa egin duela, eta gaineratu du bere taldeak Murgiazpi izena hobesten duela.

Ainara zinegotziak adierazi du teknikariak azaldu zuela izen-proposamen guztiak berak egin zituela, eta Urkiri zinegotziak argitu dio hori ez zela horrela izan, eta bere taldeak toponimo bat erabiltzeko proposamena egin zuela.

Bertaratuen artean gaia sakonean eztabaidatu ondoren, alkateak adierazi du ez duela arazorik ikusten gaia mahai gainean uzteko, betiere lortzen bada izena adostasunez hautatzea, baina horretarako bi alderdiek hobesten dituzten izen proposamenak aukeretatik kendu behar direla. Andoni zinegotziarentzat horrek ez dauka zentzurik, baina adostasuna eman dute, nahiago dutelako herritarren partehartzea bermatzea.

Hori horrela, aho batez onartu da mahai gainean uztea

### 10.- Callejero municipal: denominación de la nueva casa de cultura.

La Alcaldesa explica que había dos propuestas para la denominar la casa de cultura, y presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa cultura:

*“la propuesta para denominar la nueva casa de cultura es MURGIAZPI”*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que no les parece adecuado tomar una decisión de esa índole, cuando la propuesta se ha aprobado con el voto de calidad de la presidenta de la comisión, y propone aprobarlo con la participación de la ciudadanía, es decir, dándoles la palabra para que presenten sus propuestas.

La alcaldesa expone que se dio la oportunidad a los agentes locales para que propusieran nombres, y posteriormente fue la técnico de cultura quien realizó un estudio sobre las diferentes opciones, y añade que su grupo prioriza el nombre de Murgiazpi.

La concejala Ainara indica que la técnico expuso que todas las propuestas de nombres las había realizado ella misma, y la concejala Urkiri le aclara que eso no fue así, y que su grupo realizó la propuesta de utilizar un topónimo.

Tras debatir el tema en profundidad entre las personas presentes, la alcaldesa señala que no ve problema en dejar el tema sobre la mesa, siempre que se consiga elegir el nombre mediante acuerdo, pero que para ello hay que retirar de las opciones las propuestas de nombres que priorizan los dos partidos. Para el concejal Andoni eso carece de sentido, pero han expresado su conformidad, puesto que prefieren que se garantice la participación de la ciudadanía.





# Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

kale izendegiaren aldaketa, kultur etxe berriaren izenari dagokionez.

Así las cosas, se aprueba por unanimidad dejar sobre la mesa la modificación del callejero, respecto al nombre de la nueva casa de cultura se refiere.

## 11.- 2020ko herriko jaia izendatzea

Alkateak azaldu du 2020ko herriko gai eguna izendatu behar dela, eta uztailaren 25ean – Santiago eguna – jai dela erkidegoan.

Andoni zinegotziak proposatu du uztailaren 27a izendatzea, uztailaren 26a – Santa Ana eguna – jai delako.

Alkateak ez du gaizki ikusi, baina adierazi du horrek dakarrela dendak 3 egunez itxita egotea. Zinegotziak erantzun dio langileen eskubideak bermatzen direla, eta dendariak nahi badute beren negozioa irekitzeko aukera dutela.

Bertaratuen artean gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu da Astigarragako 2020 jai eguna uztailaren 27a izatea.

## 11.- Designación día festivo local 2020

La alcaldesa expone que hay que determinar el día festivo de la localidad, y que el 25 de julio, día de Santiago, es festivo en la comunidad autónoma.

El concejal Andoni propone asignar el día 27 de julio, dado el 26 del mismo mes –día de Santa Ana– es festivo.

La alcaldesa no lo ve con malos ojos, pero señala que eso conlleva que las tiendas estén cerradas durante 3 días. El concejal le responde que se garantizan los derechos de las personas trabajadoras, y que si los comerciantes así lo desean, tienen posibilidad de abrir su propio negocio.

Tras debatir el tema entre las personas presentes, se aprueba por unanimidad que el día festivo de Astigarraga en 2020 será el 27 de julio.

## 12.- Informazio, galdera eta eskariak.

### a.- Ubarburu-Astigarraga errepide berria.

Andoni zinegotziak proiektuaren inguruko informazioa eskatu du eta adierazi prentsan aurkeztu dela. Alkateak erantzun dio alegazio epean dagoela.

### b.- DBHko eraikina

Andoni zinegotziak adierazi du DBHrako lursaila erosi izanaz pozten direla, eta gaiaren inguruko argibideak eskatu ditu.

Alkateak erantzun dio udal gobernu taldearen nahia dela ahalik eta azkarren egitea, eta jarriko dela Jaurlaritzak –eskumena duena– adierazten duen kokalekuan, baita beraiek izan direla gaiaren inguruan eskaera ofiziala egin duten bakarrak.

Azken adierazpen horrek bien arteko eztabaida eragin du, zinegotziarentzat aurretik ere eskatu baitzen. Horrek azaldu du HAPOk DBHrako eremua Bidebitarten aurreikusten zuela eta han egitea bideragarria ez zenez (desjabetzengatik zenbateko handiak ordaindu behar zirelako), plangintza aldatu

## 12.- Información, ruegos y preguntas.

### a.- Nueva carretera Ubarburu-Astigarraga

El concejal Andoni solicita información en torno al proyecto y manifiesta que se ha presentado en prensa. La alcaldesa le contesta que se encuentra en periodo de alegaciones.

### b.- Edificio de ESO

El concejal Andoni señala que se alegran de haber comprado el terreno para ESO, y solicita explicaciones sobre el tema.

La alcaldesa le responde que el deseo del equipo de gobierno municipal es hacerlo cuanto antes y que se instalará en el emplazamiento que señale el Gobierno Vasco, que es quien tiene la competencia, y también que han sido ellos quienes han realizado una solicitud oficial sobre al tema.

Esa última manifestación ha generado un debate ente ambos, puesto que ya según el concejal ya se había solicitado antes. Este señala que el PGOU preveía el área para ESO en Bidebitarte y que al no resultar viable realizarlo allí (por las expropiaciones, al tener que



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

behar izan zutela, eta orduan beharrezkoak ziren txostenak eskatu zirela. Eta adierazi du orain dena prest eduki arren, 4 urtetan ez dela ezer egin.

Alkatearentzat, berriz, aurreko legealdian ez ziren bilerarik egin. Adierazi du lan egiteko era desberdinak dituztela, eta zinegotziari eskatu dio gaia ez politizatzeo eta ez tematzeko kokapenarekin, gaineratuz hezkuntzarekin batera elkarlanean dabilzala, eta posizionatzea nahi dutela. Eta gogoratu du aurreko idazkari-kontuhartzaileak txosten batean jaso zuela udalak ez duela eskumena eraikina egiteko.

Zinegotziak argitu dio aipatzen duen txostena ikastolako eraikin berria egin zenekoa dela (finantz iturrien ingurukoa) eta obra hura Udalaguntzarekin bideratu zela. Gaineratu du orduan udalak etxekolanak eginak zituela, eta orain berriz ez, eta ezin zaiola hezkuntzari eskatu eraikina egiteko, udalak aurrez ez baditu bere lanak egiten. Halaber, adierazi du hasieratik zegoela aukera DBH Mendiandi egiteko, eta horren inguruko aldeko txostenak daudela; baita guztiaren arazoa datorrela HAPOa onartzean ez aurreikusitako izanagatik herriaren hazkuntza, ez behar diren zerbitzuak, horien artean DBHa.

### **c.- Hurrengo udal osoko bilkurako data**

Alkateak adierazi du azkenean maiatzaren 8an ez dela bilkurarik egingo, eta legealdiko azken bilera maiatzaren 22an izango dela.

pagarse grandes cantidades), tuvieron que cambiar el planeamiento, y que entonces se solicitaron los informes que resultaban necesarios. Y señala que pese a tener ahora todo dispuesto, no se ha hecho nada durante 4 años.

Para la alcaldesa, en cambio, en la anterior legislatura no se celebraron reuniones. Señala que tienen diferentes maneras de trabajar y pide al concejal que no politice el tema y que no se obsesione con el emplazamiento, añadiendo que están colaborando con Educación y que quieren que se posicionen. Y recuerda que el anterior secretario-interventor realizó un informe señalando que el ayuntamiento no tiene competencia para construir el edificio.

El concejal le explica que el informe que cita es de cuando se construyó el nuevo edificio de la ikastola (referente a las fuentes financieras) y que aquella obra se realizó con ayuda de Udalaguntza. Añade que entonces el ayuntamiento tenía los deberes hechos, y que ahora, en cambio, no, y que no se puede pedir a Educación que construya el edificio, si el ayuntamiento no ha hecho previamente sus trabajos. Asimismo, señala que había ocasión de construir la ESO Mendiandi desde el inicio, y que existen informes favorables para ello, y también que todo el problema proviene de no haber previsto el crecimiento de la localidad al aprobar el PGOU, ni los servicios necesarios, entre ellos la ESO.

### **c.- Fecha para el siguiente pleno municipal**

La alcaldesa señala que finalmente el 8 de mayo no se va a celebrar ninguna reunión, y la última reunión de la legislatura se celebrará el 22 de mayo.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2019ko apirilaren 16an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría  
Ordezko udal-idazkaria